

Euskararen lurralde estatutu baten alde

EAJ-PNB, Alderdi abertzale eta demokrata bezala, euskara, gure herriaren unkiezin ondarea da, bere nortasun kolektiboaren zati bat. Norberaren aberaste eta lurralde garapen erronkei loturik da ere euskara.

Oztopo eta zailtasun handien aintzinean dagoen gure hizkuntz zaharrak, bereziki Iparraldean, EAJ-PNB « euskararen lurralde estatutu » baten alde agertzen da, lehen urratsa bere onarpen ofizialarako eta ezinbesteko baldintza egiazko hizkuntz berreskurapen batentzat.

I – Euskara Ipar Euskadin : beherakadari molde eraginkorrean ihardoki

A - Garai larri bat baina ez aterabide gabekoa

Iparraldean, Euskal Kuntur Erakundeak eraman inkesta soziolinguistikoan arabera, euskara kenka larrian da. Bakarrik, biztanleriaren %20a euskalduna da. Zaharrenak dira Euskaldunenak. 60 000 Euskaldun baziren 1991an, biztanleriaren %29a, 56 000a, 1996an, biztanleriaren %26.5a, 54 500 Euskaldun 2001ean, biztanleriaren %25a eta 51 100 Euskaldun, 2011an, biztanleriaren %21.4a. 20 urtez, 17 500 Euskaldun galdu dira.

Euskararen ezagumenaren bilakaera Ipar Euskadin

	1991	1996	2001	2006	2011
Hiztun kopurua	60 000	56 000	54 500	51 800	51 100
% hiztun/biztanle	29%	26.5%	25%	22.5%	21.4%

Halarik ere itxaropen bat 2011an: adin zatien arabera, hiztunen galtzea arrastatua izan da. 25-34 adin zatian %13.9 euskara hizlariak zeuden, gazteagoak, 16-24 urte artekoan direnak % 17.6a zirelarik. Beraz hor emendatze ttipi bat. Euskararen biziraupena nola segurtatu Ipar Euskadi-k bere nortasuna finka dezan?

Alderdi jeltzale bezala, euskara Euskadiren hizkuntza da. Bere garapena gure lehenetasunetarik bat da. Bainan gaur, euskara norberaren aberaste eta lurralde garapenean erronka argia da.

B - Zergatik euskara garatu ?

Lehentasun bat da, Euskara, euskal gizartearen hizkuntza bezala, babestea eta garatzea. Lurralde garapen eta garapen pertsonal erronkak frogatuak dira ere.

1- Hizkuntza, norberaren garapen faktore bat

a) Euskara, norberaren garatze gako bat bezala

Nortasunetik bizi kulturala arte

Euskararen hizlarietzat, hizkuntza nortasun indibidual eta kolektibo baten zati bat da. Euskaldun bat euskaraz bizi da. Euskaraz mintzatzen edo irriz ari da. Bere sentimenduak, bere haserrea, bere poztasuna euskaraz helarazten ditu. Entzuten edo pentsatzen du euskaraz. Beraz norberaren barne zati sakon bat da, errespetagarria. Errespetu faltarekin, gai hau laster mingarri bihur daiteke. Hizkuntz guttitu bat zaharkeriari lotzea jakobinismoak dion bezala, hizkuntz horren hizlariak zaharkerietan sailkatzea bezala da.

Famili euskaldun batean, euskara famili horren nortasun kolektiboaren bihotzean da. Burraso euskaldunak direlarik, haur bati, bere familiaren oinarriak helaraziak izan behar zaizkiote. « *Katea ez da eten. Izan zarelako gara, garelako izango zara* ». Bere burrasoen hizkuntza helaraztea, baloratuz, belanaldien arteko harreman baikor eta konfiantsa egoera bat errexten ditu. Alderantziz, gutiesgarria da aitamak hizkuntza lehengotar bati lotzea. Ondare baten parte kulturalaren baztertzeak, pertsona bat giza kate betetik kanpo senditzea ahalbideratzen du.

Erdaldunen artean, bizitzen den tokiko lurraldeari, bere kulturari, bere ohiturei, bere elkarte biziari idekidura bat. Ikastoletan edo sail elebidunetan diren haurrek, haien berehalazko ingurumena hobeki ulertzen dute eta errexkiago sartzen dira tokiko bizi kulturalan.

Kasu guzietan, komunikazio eta aberaste kulturalaren gako bat da, edo sortzaile kulturala bezala edo euskal kultura gozatuz, kantuan, bertsularitzan, literaturan edo olerkian. Euskal artista batzuen ekitaldi batean parte hartu, euskarazko erranaldi berezi batzu liburu batzuetan irakurri, eguneroko momento pozgarri aldaezinak dira.

Elebitasun goiztiarraren indarra

Horrelako elebitasuna, hain ezberdin diren bi hizkuntzen artean oso baikorra da gaitasun intelektualak indartzeko eta beste gaietan hobeto izaitzeko (ikus hizkuntzako emaitzak). Gilbert Dalgalian bezalako psikolinguistek hori erakutsi dute.

7 urte petik, ttipi ttipitik lortzen den elebitasuna posible da, ingelesari edo atzerriko hizkuntza bati konparatuz, euskaraz zinez bizitzen ahal baita, tokiko gune berezietan, zinez mintzatzeko eta ikasteko. Ttipi ttipitik lortu elebitasuna garrantzitsua da gerorako,

beste hizkuntza batzuen ikasteko.

b) Euskara : enplegu faktore bat

Gero eta gehiago euskara mintzatzea baldintza bat da Hegoaldearekin harremanetan diren lan arloetan enplegatzeko. Bereziki komertzio mailan. Euskaraz mintzatzeak konfiantza berehala sortzen du bi eragileen artean. Euskara baitezpadakoa bilakatzen da arlo batzuetan, erakasle euskaldunak gero eta gehiago galdeginak dira eskola elebidunetan. Euskaldun adidunen laguntzan, medikuntza edo EZPHAD delako arloetan eta umeeiko jardueretan, haurzaindegietan adibidez, euskara menperatzeak enplegatzen du. Halarik ere euskarari lotutako lan proposamenen kopurua handitzen da euskal hiztunen kopurua apaltzen delarik, hona hemen kondutan hartzeko enplegu alor bat.

Gaur egun Hegoaldeko lan merkatua Iparraldeko jendeari gero eta gehiago idekitzen ari da ere bai. Lan anitzak eta gaitasuneko lanak hurbiltasunean aurkitzeko ahal sortzen da.

c) Euskara, sorkuntzari lotua

Gaur euskarari esker, sorkuntza ainitz ager daitezke, hainbat alor kulturaletan, euskal rock-an adibidez. Euskara sorkuntza kultural berriei lotua da. Kulturari lotatuko sorkuntzak, musikan adibidez estilo guzietan agertzen dira : rap, slam, rock etab... Euskalkien aniztasuna ere bai sorkuntza iturriak dira. Gaizki ikus genezake euskal kantua xiberoko kantu edo bozik gabe.

d) Euskara, giza harreman gako bat bezala

Pertsonen ontasun amankomun bat badute, batzen dituenak, bereziki, euskarari lotu aktibitate kulturalak. Elebiduntasunak eta eleaniztasunak tolerantzia bat eta idekidura bat ekartzen du ; besteekiko et besteen ezberdintasunarekiko idekidura bat.

Gaurko mundializazio kultural baten egoeran, « ezberdintasun » ainitzen egoera hortan, kultur batean oinarriturik izaitea oreka faktore bat da, bestea lasaiki onartzeko, bestearengan ukaiteko eta bestearekin komunikatzeko.

Hala nola Europako Parlamentuan bozkaturako Alfonsi delako txostenak 2013ko Ekainaren 26an, aitzinatzen ditu elkarbizitza eta bakotxaren loratzearen printzipioak.

2 –Hizkuntza Lurralde garapen iturri bat¹

Politika publikoei eta Ipar Euskadiko erronkei begira, beste lurralde hizkuntzak bezala, euskara, lurralde garapenaren gako bat da.

a) Euskara, lurralde batekiko atxikimendu faktorea

Herriaren atxikimenduari lotua da. Horri esker, jende ainitz Euskal Herrira itzultzen dira inplikatur: lantegiak sortuz edo azkartuz, elkarteak sortuz, indartuz. Euskal herriarentzat den atxikimendu horren bitartez engaiatzea proiektu ezberdinetan, borondatea beharrezkoa da, printzipioz kanpoko jardueretaz gutti erakartzen duten lurraldeentzat. Adibide baten emaitako Xiberua eta Aldudeko Ibarra bezalako barnekaldeko leku horiek garapen hortaz baliatzen dira.

Bainan ere hiri eremuetan ere fenomeno hori begiaztatzen ahal da. Euskal Herriarekiko atxikimendu azkar bat duten pertsona motibatu batzuegandik dira, gaur ezagutzen ditugun, proiektu handinahi batzue sortu. Izarbel teknopoloa edota Estia ingeniore eskola dira horren adibide azkarrenak.

b) Euskara : erakargarritasun eta balorepen factore bat ondare kulturaletik

Gaur egungo euskal gizartearen kultur eta ontasunen parte handi bat euskaratik eta mendez mendetan ukan duen jitetik heldu da. Aberastasun hori erakargarria da kultur et ontasunekiko turismoan, kostaldeko turismoarekin osagarria izanez ere.

Horren bidez euskarak baloratzen du lurraldeko ondarea, euskarari interesatua den pertsona batek segitu ditu hizkuntza hori aitzinarazten dituen aktoreak, lurralde ekoizpena baloratzeko adibidez. Euskal herrian den laborantza, lurraldeko produktu eta ekoizpen tradizionalen babesteko et ezagutaratzeko egin da: ardi gasna, irulegiko anoa, Ezpeletako biperra, Ezkoipen horri lotuak diren aktore gehienak euskarari ere lotuak dira.

c) Euskara : lurralde baten ospe eta irudi eragilea

Euskara hizkuntz arraro bat denez eta besteekiko berdintasun gutti dituenez, euskal herriaren irudi berezi baina baikor bat ekartzen du. Irudi honetan lurraldea argiki identifikatua edo identifikatua izan daitekena da. Aktibitate berrien ekarrarazteko abantaila bat. Hortan, lurraldeko irudi azkar bat duten produktuetaz interesatuak diren enpresak abantailatuak dira ere.

Iparraldearen irudi berezi eta baikorraren zati bat da, bereziki lurraldeari lotu mozkinak saltzen dituzten lantegientzat.

C - Legezko aitortpena, politika linguistiko baten hiru habeetariko bat

Ez du Hizkuntza batek irauten eta ondotik garatzen ahal gizarte batean lege babespenik gabe. Israelen ebrearrarekin, Katalunian katalandarrarekin eta kebeken frantsesarekin ikusten dugu nola hizkuntz berreskurapen batek hiru neurri beharrezkoak dituen lurralde horietan presentzia kasik osoa ukaiteko eta hizkuntza guttitu batetik hizkuntza normalizatu batera pasatzeko. Hiru neurri horiek dira: Lege ezagupen bat, gizartearen galde azkar bat eta nahikeri publiko onartu bat. Horietarik bat falta edo ez bada eramana hizkuntz berreskurapenak porrot egiten du.

Gizartean galde azkar batekin eta lege babespen sakon batekin baina nahikeri publiko eta politikorik gabe (diru laguntza serioak eta azkarrak eta motibapen bat ekintza politikoen egiteko), berreskurapena mugatua da, Nafarroa horren adibide bat zen, bertako botereak legeak onartzen zuenaren minimoa egiten zuen.

Irlandan aldiz, lege babespen bat bada, baina galde zoziala, jendearen nahia hiza gaelikoa ikasi eta baliatzeko ahulegiak direnez, hizkuntzak beherakadan segitzen du. 90 urte independentziaz hiztun kopurua 400 000tik 70 000ra pasa da, 1 600 000 pertsonak gaelikoa ikasi dute eskolan baina ingelesa dute beizik horien haurrei pasarazten.

Bertako botereren nolazpaiteko nahireki bat izaiten ahal da eta gizartearen galde handi bat ere baina lege babespenik gabe ere mugatuak egoiten gira. Hau da Ipar Euskadiren kasua, elkarte munduak lan ikaragarri bat eman badu eta botere publikoak zerbaitetaz ohartu badira ere, gauzak emeki doaz, hatsanturaren arriskuarekin...

II - Lurralde hizkuntzen onarpen publikoa, geldigunean eta itzaropenaren artean

A - Kezkak euskararen geroari buruz, Ipar Euskadin

Konstituzioaren aldaketak legearen porrota markatu du azken hamarkadan, eurokartaren baieztatzeko. (1999an Frantziak izenpetua, Hollande kanpainaren engaiamendua)

Estatuak, jarrera ezezkor eta gaitzigarri bat ukan du, Pirineo Atlantiko departamenduan eta Ipar Euskadin dituen ordezkarien bidez 2013/2014 artean, ikastolen laguntza publikoen kontra (suprefeta Hendaiako erabakiaren kontra eta Auzitegi administratibora auzia ezarriz, suprefetaren oharpen gutun bat Beskoitzeko auzapezari ikastolari buruz hartu xedearen kentzea ...). Beste herri batzuetan aldiz, eramandako proiektuek legezkoatasunaren kontrola ongi pasa dute : hainbat legezko segurtasun eskas eta duda, tokiko eragile eta hautetsientzat.



2016ko Akitania lurralde handiaren sortzeak Euskal herria eta Eskualdea urruntzen ditu, Eskualde kontseiluak, lurralde hizkuntzak (euskara, okzitandarra, saitongearra...) sustengatzen zituela erran badu ere.

B - Seinale baikorrak itxaropen ekarle

- . 2013/09/11 an Europako Parlamentuaren erabakia lurralde hizkuntzen alde
- . 2013ko Maiatzan Korsikako Biltzarrak korzikerraren aldeko koofizialtasunaren estatutua eta Korzikako abertzaleen garaipena 2015eko eskualde hauteskundeetan
- . 2014tik goiti « lurralde kulturen garapen » gaitasuna Eskualdeekiko lekualdaketa, gai horren eramaile gisa.

C - Egoera berri historiko bat : Euskal Hirigune Elkargoa (EHE)

Aro berri baten idekitzea, 2017ko Urtarrilaren 1ean sortu den Herri elkargoarekin: emanak izan diren tailer ezberdinek (Hazparneko tailerrak, Hautetsien Kontseilua) erakusten dute lurraldeko hautagaien implikazio eta engaiamendua hizkuntz politika baten alde, hirigune bakarrean. Ipar-Euskadik erakunde bat dauka, hizkuntz politikaren obralari naturala bezala.

III – Gaur egun oztopatua den egoera gainditu

A - Gakotze konstituzionala martxan lurralde hizkuntzen aurka

Herrialde hizkuntzen aldeko aldaketa konstituzionalik gabe, Kontseilu konstituzionalaren jarreraren malgutze edo bilakaera aurreikusketarik gabe, bereziki 75-1 artikulua erantzat, ez da esperantza handirik ukaiten ahal, aldi oro gibelatua den Herrialde hizkuntz guttituen eurokartatik.

B - Lurralde ikusmoldea, bilakaera bide aukera bat

Zonbait urteetatik, EAJ-PNB ohartzen da ahalik gabeko bide bat dela, ikuspuntu konstituzional batetatik, talde eskubideen onarpena hizkuntza mailan. Esate baterako, hiztun talde bati, hizkuntz eskubide berezi batzuen onartzea, Frantses lurralde nazionalan.

« Lurralde » delako politikentzat eta orohar, legeak onartutako lurralde ikusmoldeak, bide berri bat idekitzen du euskararen babesa eta garapenarentzat. Horrez gain « lurralde hizkuntzak, frantses ondarearen barne dira » baieztatzen duen Konstituzioaren 75.1 artikulua Lurralde erakundearen kapituluan barnatua da.



Lurraldetasun ikuspunduaren lantzeak, legearen aitzineko herritarren berdintasun printzipioaz moldatzea ahalmentzendu.

Beraz, EAJ-PNB-k, euskararen koofizialitatearen bidean, Errepublikaren lurralde baten hizkuntza izaitea lehenesten du.

Euskararen ofizialtasuna bere lurraldean : legezko babes ezin hobea

Euskararen babespen ezin hobea, nahitez, geroari begira, euskararen koofizialitateetik pasako da. Zendako ? Hona hemen Korzikako ejekutiboaren presidentek, korzikarraren ofizialtasunaz, 2013-ko estatutuan ematen duen legezko definizioa : „Agertzen da, nahikeri politika eraginkor baten zutabe juridikoa, koofizialitate estatutua dela, hizlarietara korzikarra bizi publikoan baita pribatuan mintzatzeko eskubideak eman eta ber denboran, eginbeharrak eta tresnak eman erakunde publiko eta pribatuaren eskutik, eskubide horien ahalbideratzeko.“

Koofizialitateak, hizkuntz gutturu baten hizlarietara legezko babespen maila handiena eskaintzen die. Beharrez, auzira joaten ahal dira, horien hizkuntz eskubideen errespetarazteko. Ofizialtasunarekin, hizkuntz eskumen guztiak emanak zaizkie gizaritari : hizkuntza ikasteko eskubidea, zerbitzu publikoetan baliazteko eskubidea, komunikabideen ukaiteko eskubidea, ... horrek betebeharrak zombait sortzen ditu lurraldean diren erakunde publikoentzat, izan Estadoaren adarrak, zerbitzu publiko handienak edo lurralde erakundeak. Adibidez, euskaraz hitz egiteko eskubideak administrazio batean, bertako langileen euskaraz hitz egiteko gaitasuna betebehartzen du. Haurrak euskarazko sailetan emateko eskubideak, erakasle euskaldunak ukaitea betebehartzen du.

Euskararen onarpen ofiziala edo euskararen ofizialtasuna Iparraldeko lurralde osoan gure hizkuntza, frantsesaren heinean izanen da, jakinez frantsesa dela Errepublikaren hizkuntz ofizial bakarra Frantziako lurralde osoan eta hizkuntz nagusia Iparraldeko herritarren artean.

Frantzian gaur egungo legean, koofizialitatea ez da posible legearekiko berdintasunaren kontra joaten baita, gizaritean berdintasunaren printzipioaren kontra legearekiko eta Errepublikaren zatiketara ezinaren kontra. 1999an, Kontseilu Konstituzionalak 99-412garren erabakian erran du eurokartaren engaiamendu batzuek : Errepublikaren berdintasun, zatiketara ezin, eta legearekiko berdintasunaren printzipioen kontra joaten direla. Ber maneraz, Errepublikako metropola osoan edo parte batean frantsesaz aparte beste hizkuntz bat ofiziala bilakarazteko lege proposamenek porrot egin lezakete.

Kontseilu konstituzionalak, bainan ere auzitegi administratiboek, Frantziaren betiko jarrera berretsi dute. Erreki laburbildu daiteke : frantses hizkuntza hizkuntz bakarra

da herritar guzientzat, edozoin eskubide berezirik debekatuz hiztun talde bati. Hiru oinarriek dute oztopatzen lurralde hizkuntzen aldeko legedi bilakaera baikor bat :

- Errepublika zatiezina: lege bakar bat lurralde batean eta biztanle guzientzat.
- Berdintasuna legearen aitzinean: lege berdina denentzat
- Frantses herriaren batasuna : « Frantses herria, frantses herritar guzietaz osatua, jatorri, arraza edo erlijio bereizketarik gabe. »

Euskararen garapena EAJ-PNB-ren lehentasunetan denez, koofizialitatea bere engaiamendu politikoaren helburu garrantzitsuenetariko bat da. Euskal Herrian egiazko gizarte elebiduna ukaiteko, euskara-frantsesarekin, beste hizkuntzen erakaskuntzari damurik egin gabe, gaztelera eta inglesa adibidez baita okzitaniera (gaskoiera) ere.

Halarik ere, gaur egungo egoera eta koofizialitatearen helburuaren artean, bitarteko neurri bat bada, EAJ-PNB-k beharrezkoa aurreikusten duena : Euskararen lurralde estatutua.

IV Euskararen lurralde estatutua » , euskararen onarpen gero ta handiago baten bermea, Iparraldean.

EAJ-PNB-k helburu zombait lotzen dizkio Lurralde estatutu honi :

- euskararen inguruko politika eta legezko arazoak gainditu
- arau berri eta egingarri bat proposatu euskarak pausoz pauso onartasun bat ukaiteko Ipar Euskadin

A - Ezberdintasunak ko-ofizialitatea eta euskararen estatutuaren artean : beharrezko neurria eta nahizko neurria

Ko-ofizialitatea, herritaren (edo hiztun taldeen) hizkuntz eskubide sail batean sartzen da, nun Estadoari betebeharrak zombait sortzen zaizkion, eskubide horien segurtatzeko bizi publikoaren eremuetan.

Euskararen lurralde estatutua podere publikoen euskararekiko nahikerian sustatzen da. Engaiamendu hori Estatutuarekiko legean argitua eta zehaztua izanen da. Legearen indarra ukanen du eta beraz, eskubide batzu emanen ditu herritarrei. Helburua da diren babespenak segurtatzea, gauza berrietan espermentatzea eta azkenik hitzartzea lankide publikoekin.

B – Neurri legala : Euskararentzako Lurralde estatutu baten esperimentazio lege bat

Administrazioetan gainditzekoak diren beldurrak bereziki administrazio zentraletan, eta oztopo idelogikoak konduetan hartuz, baita Ipar Euskadin gizarte munduak, elkarte munduak eta jendeek eramandako mobilizazioak hizkuntz sailean, EAJ-PNB-k ez du sinesten, berehalako edo erdizko denboraldi batean, lege orokor baten onarpena, frantzian diren hizkuntzen alde eta zehazkiago euskararen alde. Aski da begiratzea Parlamentutik etorritako entseguek nola aldi oro, porrot egin duten, alde batetik gobernuaren oztopo batetatik edota senadore edo diputatu gehiengo baten ezeztapen batetatik edozoin sensibilitate politikoetatik. Halarik ere, lege orokor bat, Ipar Euskadiren egoeran, egokitua liteken lurralde estatutu batekin osagarria litaik.

Guretzat esperimentazio bidea gaurko ikusmoldeei begira egokituagoa litaik.

Estatutu horrek eragile kulturalen eta tokiko biztanleen gehiengo baten beharrei erantzuteko gogoia du. Esperimentazio hau, idekia izanen da nahikeri hau duten Frantziako beste lurraldeei.

C - Lurralde estatutua : erranahia, helmena, edukia

« *Euskararen lurralde estatutua* » orain danik horrela defini daiteke : tresna juridikoa da, legislatiboa eta ez bakarrik hitzarmenentzat, araudi legal guziak identifikatzen dituenak, bainan ere, baliagarri diren eskubide eta betebeharrak guziak biztanleria eta bereziki aktore pribatu eta publikoen aintzinean, euskararen garapena, erakaskuntza eta promozioaren alde ari direnak.

Lurralde Estatutuaren helburua hizkuntz eskubideen sakontzea eta biziaraztea izanen da, oraindik sortuak eta sortzeko direnak. Estatutu hau eraiki behar da harreman zorrotzak sortuz euskarari lotutako erakundeen publiko edo pribatuen artean. 37-7 eta 72ko 4. artikuluen esperimentazioaren izenean lege onarpen bat izanen da.

37-1 artikulua dio " *lege eta araudiak, gauza eta epe mugatu batentzat, neurri esperimentaletaz osatuak izaiten ahal dira* ". 72. Alinea 4 artikulua dio " *Lege organiko baldintzen arabera, eta salbu neurri konstituzionala edo askatasun publikoen aplikapena ez badira segurtatuak, lurralde erakundeak edo horien multzoak, esperimentazio gauza batentzat eta epe mugatu batean, horien ibilmoldearekiko lege eta arauen derogazioak egiten ahalko dira* ".

Horren ondotik, *Euskararen lurralde Estatutua* aztertua izanen da jakiteko ea jarraitzen den eta orokortzen den lege bati esker. Estatutu hau ezinbesteko urratsa da euskararen onarpen ofiziala lortu arte.

V – Euskararen lurralde estatutuaren hiru adarrak

Sakonkiago EAJ-PNB-k *Lurralde estatutua* 3 zati ditu.

Lehen adarra- gaur diren hizkuntz mailako arauak zerrendatzea eta elikatzea, hobeki biziarazteko

Testu eta arauen sailkapena

Egin nahi ekintzen legaltasunaz duda duten eragile aintzendako, argitasun lan hau interesgarria da.

Beharrezkoa den lan bat da, hizkuntz saileko arauen nahasketa ikusiz. Ez da baitezpada lurralde hizkuntzei buruzko testu kopuru handirik edota frantsesarekin duten harremanari buruz baina direnak, gehienetan parte anitzetan zatituak dira, Estatu mailan eta lurralde mailan. Agertzen dira dedukzioak eginez aipamen zehatzik ez delarik. Horreatarako garrantzitsua da horien sailkatzea eta behar delarik sailkapen honen arraberritzea. Den dena azertu gabe eta lan zehatz eta zorrotz bat egin aintzin, bide batzu badaude gaur danik.

- Konstituzio mailako arauak : Konstituzioaren 75-1 artikulua, eta kontseilu konstituzionalak ematen dion interpretazio murriztagarriak, segurtatzen ditu lurralde kolektibitateen eskumen eremua eta horien kudeaketa librea (XII. titulua), hala nola esperimentazioari doakion artikulua, Giza eskubideen deklarapena, frantsesaren erabilpenari buruzko, Villers-Cotterêts-ko manamendua.
- Kontseilu konstituzionalaren jurisprudentziatik ateratako printzipio berriak : erabaki anitzetatik, ateratzen da, frantsesa eta euskararen arteko elkarbizitza guneak izaiten ahal direla. 1999-ko ekainaren 15 ean, Kontseilu konstituzionalaren erabakiak, onartzen du harreman eta adierazpen askatasunaren pean, lurralde hizkuntza baten erabilpena baliagarria dela itzulpenetan, irakaskuntzan, ikerketetan eta ikus-entzunezko komunikazioan.
- Legegintza mailako arauak :

> lurralde kolektibitateen ibilmoldeak kudeatzen dituzten lege organikoak eta kodigoak

> ekonomia, gizarte eta zuzenbidezko arlo ezberdinei doakien legeak

> Hezkuntza legea

> hizkuntza arloa zuzenean edo ez kudeatzen duten legeak (adibidez irakaskuntza edo beste arlo batzuentzat neurri zorbait dituzten finantza legeak). Adibide gisa :

pertsona elbarritueri lotua den aukeren berdintasun legea (2000), harreman askatasunari doakiona (1986) harreman elektronikoei eta ikus-entzunezko komunikazio zerbitzuei doakiena etab.

> dekretuak, erabakiak eta zirkularrak : horiek dira gehienak eta ainitzetan zehatzenak, agindu eta zirkular batzuen arau gabeko izaera erreserbarekin.

* Jurizprudentzia multzoa : Europa mailako lege erakunde gorenaren erabakiak (Giza eskubideen Europako auzitegia, Europako auzitegia) Frantzia mailakoak (estatu kontseilua, kasazio gorrea...) eta lehen edo bigarren mailako auzitegien erabakiak, ezeztatuak ez badira izan.

Kodifikazio-zainketa

Frantses barne legean aurkitzen diren euskarari lotutako hizkuntz eskubide guziak zerrendatuak eta bermatuak izanen dira, kodifikatuak edo zainduak izateko. Berrikuspen lan hori beharrezkoa da ongi identifikatzeko zer egin eta eginga izan den euskararen alde bai publikoki eta bai pribatuki, bai eta ere hizkuntz politikaren aktore garrantzitsuenak zoin diren.

Zainketa zerbitzu bat plantan emana izanen da administrazioa, lurralde erakunde edota zerbitzu publikoak eskaintzen duen zerbitzu pribatuen gehikerien ikusteko eta zuzentzeko. Oraindik dauden adibide batzu : Euskal izenen aldaketak, euskarazko helbide zati batuen kentzea, ...

Eskualde hizkuntz guttituen eurokartatik etorritako erabaki berriak

Lehen zutabe honek, Frantziak izenpetutako Eskualde hizkuntz guttituen eurokartaren 39 neurri guzien edo parte baten bermatzeko parada ekartzen du. Horietarik zombait jadanik, barne Arautgegian barnatuak izaiten ahal dira Kontseilu konstituzionalak emandako mugak kondutan hartuz.

Bigarren adarra- Esperimentatu berrikuntzak egiteko, urrunago joateko.

Hori da Estatutuaren bihotza nolazbait, oraino diren lege oztopo batzuen zuzentzea, bereziki Hezkuntza sailean eta eskumen berriak hartu. 37.1 (legegintza dispensa) eta 72 alinea4 (eskumenen lekualdaketa) artikuluen entsegutik lege baimen bat izango da. Ondotik ebaluaketa bat ezagutuko du mantentze baten esperantzan edo orokortsasun batean legearen bidez.

1-Salbuespeneko esperimentazio legea

-Molde eta printzipioak euskararen erakaskuntza proposamenean sail publikoan murgiltze eta elebidunean.

* Lehen mailatik lizeora, eskola pribatu edo publikoak gai izan behar dira hurrei 3 erakaskuntza mota proposatzea : murgiltze sistema euskaraz ; sail elebiduna, eta frantses saila euskara hautabide bezala proposatuz. Burasoek dute, horien haurra eskola publiko baten euskara sailean ezartzeko erabaki bakarra. Sensibilizatu Erakasleen norabidearen bidez, euskararen ikaskuntza eskaerari erantzuteko. Estatu eta euskal herri hirigunearen arteko finantzaketa kontratu publiko maneran erakasle lanpostu berrien sortzeko.

* Salbuespen bat falloux legeari, erlijio gabeko elkarte munduko murgiltze sailentzat diru laguntzak-Polemika erdian den erlijio problematika honek ez ditu kondutan hartzen murgiltze sistema duten eskola pribatuek.

* Gehienik euskaldun diren eremuetan, eta jendartearekin kontaktuan sartzeko beharrezkoa den lanentzat, euskararen jakintza ekartzeko parada.

2 - Konpetentzien trukaketaren entsegua

Euskal erakundeak eskatuko dute Estatuaren erabaki batzu bere lurraldean galdezkatuko ditu experimentazioaren bidez. Hori egin aitzin, Estadoak, eta bere ministerio eta administrazioek eremaiten dituzten politika publikoak zerrendatu behar dira (Hezkunde nazionala, kultura, ikus-entzunezkoa, ...)

Hirugarren Adarra : Partaide publikoekin kontratupetu

Adar honek, elkarlan bat ahalbideratuko du Euskal hiriguneak, hizkuntza mailan, konpetentzia delegazioak adosten ahalko ditu beste Lurralde Elkargoekin. Lehen urrats batean, Euskal Hiriguneak, Akitania Berria lurraldearekin, konpetentzia delegazio bat kontratupetu behar du, lurralde kultur eta hizkuntzen promozioa eta mugazgandiko elkarlanean.

Adar honek, Estatuaren administrazioekin elkarlan bat ahalbideratu eta azkartzen ahalko du (Errektoretza, Tresor publikoa, auzitegia, enplegu agentzia, ...) eta enpresa edo erakunde publikoekin (SNCF, Frantziako Bankua, ERDF, Miarrizeko aireportua, CAF, Ganbara kontsularrak, ...)

Eskualdearekin izanen den gaitasunen ordezkartaz gain, erakunde publiko edo erdi publikoekin harremanetan sartzea euskaren presentzia segurtatzeko, harrera zerbitzuetan, langileen formakuntzan, barnekaldeko seinaleketan, kanporako komunikazio ekintzetan, administrazioeko dokumentuen elebitasunean. Eta mugazgandiko elkarlan bat ahalbideratzen ahalko dut, Euskal Autonomi erkidegoaren eta Nafarroako foru erkidegoaren erakundeekin : komunikabide publikok, irakaskuntza, Euskal telebistaren helaraztea.



VI - Euskal hirigune elkargoa (EHE) : Egiazko erabakitzaille publiko bat

EAJ-PNBk galdegiten du egiazko erabakitzaille publiko bat identifikatua izan dadin, desentralizazio legearen izpirituan. Horrek zehazten du Eskualdeek dutela eskuduntza ukanen « eskualde hizkuntzak » promozionatzeko. Gure kasuan, lehen lehenik galdegiten dugu Iparraldeko Lurralde Elkargoak euskararen promozioaren eskuduntza ukan dezan. Horrek erran nahi luke guretzat partaidetzan lan egingen duela, baina alor horretan erabakitzaille bakarria dela. Adibidez, Hezkunde Nazionalarekin lan egingen du baina berak dauka lehentasuna politika baten definitzeko Hezkunde Nazionalak gauzatuko duena. Erabakitzaille publiko horrek behar den aurrekontua ukanen du.

Partaidetzak definituko ditu aktore publiko eta pribatu guziekin, solaskidetasun izpirituan, baina beharrezko ardatz nagusiak finkatuz.

Euskal hiriguneak garrantzia handiko erabakiak hartzen ahalko ditu, adibidez helduentzako, euskararen alfabetizazio eta irakaskuntza sare elkargo baten sortzea. Gaur den eskaintza baloratzeko, tokiko zerbitzu publikoen zorrotasuna segurtaturik. Euskararen lurralde estatutuarekin batera, lan bat eraman izanen da gaskonieraren eragileekin Ipar Euskadiko Adour peko gunean hizkuntz honen legezko babespena gogoetatzeko.

Proposamen horri esker, EAJ-PNBk euskarari duen atxikimendua berresten du, Euskal Herriaren hizkuntz historikoa, Iparraldeko biztanle zati baten hizkuntz baliatua eta etorkizunerako gaur mintzatua den lurralde guzietan. « Euskararen lurralde estatutu » horren bidez, EAJ-PNBk ez du ukatzen gaur Euskal Herritarrei debekatua zaizkien beste hizkuntz eskubideak, ko-ofizialtasunaz abiatuz.